

**ALKATETZA
DEKRETUA**

2020 000001949

Espediente-zenbakia: 2020/IDA_DEK0472**Xedea**

COVID-19a ugaltzearen ondorioz sortutako osasun-alerta dala eta, 2020ko abuztuaren 19tik aurrera, heriotza kasuetan eta gurtza zentroetan jarraitu beharreko osasun eta segurtasun neurriak onartzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: COVID-19aren hedapenak eragindako osasun-alertak sortu dauen egoeraren aurrean, Lehendakariak, martxoaren 13ko 6/2020 Dekretua eman eban, Lehendakariak Euskadiko Herri Babeseko Plana-Larrialdiei Aurregiteko Bidea-Labi zuzentzeko eskumenak bereganatzeko.

Bigarrena: COVID-19ak sortutako osasun krisia kudeatzeko Alarma Egoera ezartzen duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua onartu zan.

Hirugarrena: COVID-19ak sortutako osasun egoeraren ondorioz, heriotza kasuetarako arauak ezartzeko Osasun sailburuak agindua eman eban 2020ko martxoaren 26an.

Laugarrena: COVID-19aren zabaltzea eta kutsatzea ekiditeko, beilak eta hiletak ospakizunetarako ez ohiko neurriak ezartzen Osasun Ministroaren SND/298/2020 Agindua eman zan martxoaren 29an.

Bosgarrena: 2020ko martxoaren 30eako 872 zenbakidun Alkatetza Dekretu bidez, COVID-19ak sortutako osasun egoeraren ondorioz, heriotza kasuetan jarraitu beharreko osasun eta segurtasun neurriak onartu ziran.

Seigarrena: 2020ko ekainaren 9an, COVID-19ak sortutako osasun krisia aurre egiteko prebentzio, euspen eta koordinazio premiazko neurriak ezartzeko 21/2020 Errege Dekretu-Legea onartu zan.

Zazpigarrena: 2020ko ekainaren 18ko Lehendakariaren 14/2020 Dekretuz, deseskaladarako 3. Fasea gaindituztat eta, horrenbestez, alarma-egoeraren esparruan hartutako neurriak indargabetu eta "normaltasun berria" hastea onartu zan.

Zortzigarrena: 2020ko ekainaren 18an, Osasun sailburuak, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiari aurre egiteko, Normaltasun Berrirako Trantsiziorako Planaren 3. fasea gainditu eta gero, beharrezko prebentzio-neurriak buruzko Agindua eman eban.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E40004C09300V1T5Z7S2R3H2**Sinadurea eta data**ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 20/08/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 20/08/2020
10:12:40EXPEDIENTE ::
2020IDA_DEK0472
Data: 30/03/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadaea:
Erregistro nagusia

Bederatzigarrena: 2020ko uztailaren 28an, Osasun sailburuak, 2020ko ekainaren 18an emondako Aginduaren eranskina aldatzen dauen Agindua emon eban.

Hamargarrena: 2020ko abuztuaren 14an, Segurtasun sailburuak, COVID-19 dalakoaren hedapenaren ondoriozko osasun-alertak eragindako egoera dela eta, Euskadiko Babes Zibileko Plana, Larrialdiei Aurreiteko Bidea-Labi izeneko plana, formalki aktibatzen Agindua emon eban.

Hamaikagarrena: COVID-19aren hedapenak eragindako osasun-alertak sortu dauen egoeraren aurrean, Lehendakariak, 2020ko abuztuaren 15ean 17/2020 Dekretua emon eban, Lehendakariak Euskadiko Herri Babeseko Plana-Larrialdiei Aurreiteko Bidea-Labi zuzentzeko eskumenak beregatzeko.

Hamabigarrena: 2020ko abuztuaren 19an, Osasun sailburuak, 2020ko ekainaren 18an emondako Aginduaren eranskina aldatzen dauen Agindua emon eban.

Argudioak

Lehenengoa: 21/2020 Errege Dekretu-legeak honakoa xedatzen dau:

6. artikuluan: "Uso obligatorio de mascarillas.

1. Las personas de seis años en adelante quedan obligadas al uso de mascarillas en los siguientes supuestos:

a) En la vía pública, en espacios al aire libre y en cualquier espacio cerrado de uso público o que se encuentre abierto al público, siempre que no resulte posible garantizar el mantenimiento de una distancia de seguridad interpersonal de, al menos, 1,5 metros."

13. artikuluan: "Actividades de hostelería y restauración.

Las administraciones competentes deberán asegurar el cumplimiento por los titulares de bares, restaurantes y demás establecimientos de hostelería y restauración de las normas de aforo, desinfección, prevención y acondicionamiento que se determinen.

En cualquier caso, deberá asegurarse la adopción de las medidas organizativas que resulten necesarias para evitar aglomeraciones tanto dentro del establecimiento como en los espacios de terrazas autorizados y garantizar que clientes y trabajadores mantengan una distancia de seguridad de, al menos, 1,5 metros. Cuando no sea posible mantener dicha distancia de seguridad, se observarán las medidas de higiene adecuadas para prevenir los riesgos de contagio."

16. artikuluan: "Otros sectores de actividad.

Las administraciones competentes deberán asegurar el cumplimiento por los titulares de cualquier otro centro, lugar, establecimiento, local o entidad que desarrolle su actividad en un sector distinto de los mencionados en los artículos anteriores, o por los responsables u organizadores de la misma, cuando pueda apreciarse riesgo de transmisión comunitaria de COVID-19 con arreglo a lo establecido en el artículo 5, de las normas de aforo, desinfección, prevención y acondicionamiento que aquellas establezcan.

En todo caso, se deberá asegurar que se adoptan las medidas necesarias para garantizar una distancia interpersonal mínima de, al menos, 1,5 metros, así como el debido control para evitar las aglomeraciones.



Cuando no sea posible mantener dicha distancia de seguridad, se observarán las medidas de higiene adecuadas para prevenir los riesgos de contagio”

Bigarrena: Osasun sailburuak abuztuaren 19an emondako aginduan honakoa xedatzen da:

1.3 artikuluan: “1.3 artikuluan: “1.3.1.– Pertsonen arteko tartea edozein dela ere, nahitaezkoa izango da maskara erabiltzea, bai bide publikoan eta aire zabaleko espazioetan, bai erabilera publikoko gune itxietan edo jendearentzat irekita dauden lekuetan, eta espazio berean beste pertsona batzuekin elkartu daitekeenean. Salbuespen izango dira agindu honetan aurreikusitako kasuak, bai eta COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiari aurre egiteko prebentzio, geldiarazte eta koordinazioko premiazko neurrien ekainaren 9ko 21/2020 Errege Lege Dekretuaren 6.2 artikuluan aurreikusitako kasuak ere.

(...)1.3.3.– Desgaitasuna, mendekotasuna, gaixotasuna edo arnasa hartzeko zailtasuna dela-eta aipatutako 21/2020 Errege Lege Dekretuan oinarrituta maskara erabiltzetik salbuetsita dauden pertsonen kasuan, gorabehera hori dokumentatu ahal izango dute, behar den moduan, desgaitasun- edo mendetasun-maila egiaztatzen duen dokumentu baten bidez, edo mediku-ziurtagiri baten bidez, zeinaren ordeztu ahal izango baita eraginpeko pertsonaren edo haren tutorearen erantzukizunpeko adierazpen bat. Hori ez da eragozpen izango erantzukizunak eskatzeko, adierazpenaren zehaztasunik ezagatik.

(...)1.3.8.– Derrigor maskara behar bezala erabili behar da, sudur-trenkadaren zati batetik kokotseraino (barne) estaliz.

1.3.9.– Erabili beharreko maskara motak ez du arnasa egiteko balbularik izan beharko, salbu eta maskara mota hori gomendatuta dagoen erabilera profesionaletan.

1.3.10.– Establezimendu, espazio edo lokalen titularrek bermatu beharko dute beren espazioetan bete egiten dela betebeharrak hori.”.

2.2 artikuluan: “Jarduera ekonomikoaren titularrak edo, hala badagokio, zentro, instalazio, erabilera publikoko espazio eta erakunde zuzendariak edo arduradunak ziurtatu beharko du garbiketa- eta desinfekzio-neurri egokiak hartzen direla agindu honetan aipatzen diren establezimendu, lokal, instalazio edo espazioen ezaugarrietarako eta erabilera-intentsitaterako.”.

3. artikuluan: “ 3.1.-Edukiera kontrolatzearen arloko neurriak.

3.1.1.– Establezimenduek, instalazioek eta lokalek gehieneko edukiera adierazi beharko dute jendaurrean, eta edukiera horretan langileak ere jasoko dira. Haien barruan edukiera eta pertsonen arteko segurtasun-distantzia errespetatzen direla ziurtatu beharko dute, eta edukiera zenbatzeko eta kontrolatzeko prozedurak ezarri beharko dituzte, inoiz ere gainditu ez dadin.

3.1.2.– Pertsonen zirkulazioa antolatzeko eta espazioak banatzeko orduan, pertsonen arteko segurtasun-distantziari eusteko ahalegina egin beharko da. Ahal den neurrian, ibilbideak ezarriko dira bezeroen eta erabiltzaileen zirkulazioa zuzentzeko eta gune jakin batzuetan, bai barrualdeetan bai kanpoko aldeetan, pertsonen pilaketak eta haien arteko kontaktua saihesteko. Bi ate edo gehiago daudenean, sarrerarako eta irteerarako erabilera desberdina ezartzen saiatuko da, pilaketak sortzeko arriskua murrizteko.

3.2.– Beilak eta ehorzketak.

3.2.1.– Beilak mota guztietako instalazio publikoetan zein pribatuatan egin ahal izango dira, behar bezala gaituta badaude, eta gehienez ere 30 pertsona egon ahalko dira une bakoitzean aire zabaleko espazioetan edo espazio itxietan, bizikideak izan zein ez. Bertaratuen gehieneko kopuru hori aldi berean edo ez aldi berean zenbatuko da. Beraz, aipatutako beilara ezin izango dira joan adierazi dena baino pertsona gehiago. Bertaratuen kopurua txikiagoa bada, ezingo da gainditu baimendutako edukieraren % 60.



3.2.2.– Hildako pertsona bat ehorzteko edo haren errausketa-agurra egiteko segizioan, gehienez ere 30 pertsonak parte hartu ahal izango dute, ekitaldia leku irekian egiten bada. Gainera, hala badagokio, hildakoa agurtzeko hileta-errituak egiteko dagokion konfesioko kultu-ministroak edo antzeko pertsona batek ere parte hartu ahal izango du. Leku itxian egiten bada, baimendutako gehieneko edukieraren % 60 errespetatuko da beti, eta pertsonen arteko segurtasun-distantziari eutsiko zaio beti.

3.3.3.– Kasu guztietan, nahitaezkoa izango da maskara erabiltzea denbora guztian.

3.3.– Kultu-lekuak.

3.3.1.– Kultu-aretoetara joaten direnek ez dute hartuko lekuaren edukieraren % 75 baino gehiago. Kulturako erabiltzen den espazioko ikusteko moduko toki batean erakutsi beharko da gehieneko edukiera.

3.3.2.– Eraikinen kanpoaldea edo bide publikoa erabiltzen bada kultu-ekitaldietarako, dagokion udal-agintaritzak onartu beharko du. Pertsonen arteko segurtasun-distantzia mantentzeko beharrezko neurriak ezarri beharko dira, edo, halakorik ezean, babes fisikorako neurri alternatiboak baliatuko dira. Maskara erabiltzea nahitaezkoa izango da, nahiz eta pertsonen arteko segurtasun-distantzia 1,5 metrokoa izan.

3.4.– Ezkontza-zeremoniak eta beste ospakizun erlijioso edo zibil batzuk.

3.4.1.– Zeremonia edo ospakizun horiek kultu-lekuetan egiten badira, edukiera-arauak eta higiene- eta prebentzio-neurriak aplikatu beharko dira agindu honetan berariaz jasotako erlijio-kultuko ekitaldiak egiteko (...)"

Hirugarrena: Agindu honeetan aurreikusi gabekoari jagokonez, Euskal Autonomia Erkidegoko Hilotzen Osasunari buruzko Erregelamendua (urriaren 19ko 202/2004 Dekretuaren bidez onartua) aplikatuko da, bai eta Osasun Ministerioak egindako dokumentu teknikoak ere, Covid-19 kasuen gorpuak maneiatzeko prozedurari buruzkoa.

Laugarrena: Edozein kasutan Osasun Ministerioak eta Osasun sailak emandako gomendioak eta aginduak errespetatu beharko dira.

Bosgarrena: Erabagia hartzeko ahalmenari jagokonez, Toki Entitateen Erregimenaren oinarriak onartzen dauzan 7/1985 Legearen 21.1.m) artikulua araberak, alkateari jagoko, beti be Osoko Bilkurari erabagi horren barri emonda egiten dan lehenengoko batzarrean.

Erabagia

Hori guztia dala eta, honakoa erabagi dot:

LEHENENGOA: COVID-19a ugaltzearen ondorioz sortutako osasun-alerta dala eta, 2020ko abuztuaren 19tik aurrera, heriotza kasuetan eta gurtza zentroetan jarraitu beharreko osasun eta segurtasun neurri honeek onartzea:

- Beiletara, danatara, 30 pertsona joan ahal izango dira, bai aire zabalean bai leku itxietan egiten badira, bardin bizikideak izan zein ez. Kopurua txikiagoa bada ezingo da %60ko aforoa gainditu.
- Lurperatze edo errauste agurretan, gehienez 30 pertsona eta erlijioaren araberako apaiz edo zerbitzari batera mugatzen da parte hartzaileen kopurua, aire zabalean, eta %60ko aforora leku itxietan egiten bada.



- Parte hartzaileek gitxieneko distantzia (1,5 m.) bermatu beharko dabe, ahoa babesteko maskarila erabiliko dabe eta Osasun agintariek emondako gomendioak jarraitu beharko dabez uneoro.
- Edozein kasutan Osasun Ministerioak eta Osasun sailak emandako gomendioak eta aginduak errespetatu beharko dira.

BIGARRENA: COVID-19ak sortutako osasun egoera kudeatzeko, gurtza zentroetan jarraitu beharreko osasun eta segurtasun neurri honeek onartzea:

- Bertaratutakoen kopurua ezingo dau aforoaren %75a gainditu. Gehienezko aforoa argitaratu eta ikusgai egon beharko da.
- Parte hartzaileek gitxieneko distantzia (1,5 m.) bermatu beharko dabe, ahoa babesteko maskarila erabiliko dabe.
- Eraikinaren kanpoaldea edo bide publikoa erabili gura bada, udalaren baimena beharko da eta parte hartzaileen arteko gitxieneko distantzia bermatu edo babes fisikoak ipini baherko dira.
- Osasun agintariek emondako gomendioak jarraitu beharko dabez uneoro.

HIRUGARRENA: Erabagi hau ehortzetxe, tanatorio, lurperatzaile eta gurtza zentroeri jakinaroztea.

LAUGARRENA: Idazkaritza Sailari, ATB Sailari eta Zerbitzu Sailari erabagiaren barri emotea.

BOSGARRENA: Erabagia Bermeoko Udalaren web gunean argitaratzea.

SEIGARRENA: Hurrengo Tokiko Gobernu Batzarrean eta Osoko Bilkurean Dekretuaren barri emotea.

Oharra: sinadurea eta data orri-oinan .



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E40004C09300V1T5Z7S2R3H2

Sinadurea eta data

ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 20/08/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 20/08/2020
10:12:40

EXPEDIENTE ::
2020IDA_DEK0472
Data: 30/03/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

